



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

OPE 2017-2018

2017-2018 LEP

Grupos A1 (A) - A2 (B)

A1 (A) - A2 (B) taldeak

**PRAKTIKALDIAREN DISEINUA ETA
EBALUZAIOA**

SARRERA

2017-2018 LEPeko deialdiko zortzigarren oinarriaren arabera, prestakuntza- eta praktika-aldi bat planteatzen zuten hautaketa-prozesuaren hirugarren fase gisa.

Berariazko oinarrietan praktikaldiaren iraupena zehazten da, eta xedatzen da baztertzaila dela, eta hura gainditzen ez duen hautagaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dela.

Agiri honek prestakuntza- eta praktika-aldiaren planteamendua, ezaugarriak, jarraipena eta ebaluazioaren ingurukoak biltzen ditu.

C. Praktikaldia.

Lehiaketa- eta oposizio-aldietako emaitzak aintzat harturik, hiru hilabeteko praktikaldirako izendapenak proposatuko ditu epaimahaiak, eskaintzan zenbat lanpostu diren horrenbeste izangai; epe horretan lanpostuari dagokion ordainsari osoa jasoko baitute. Karrerako funtzionario izendatuak izatekotan, hautatze-prozesuko aldi hori ere gainditu beharko dute izangaiek. Azken fase horretan, trebetasun pertsonalak ebaluatuko dira bereziki, eta lanpostuan jarduteko betekizunetara egokitzen diren. Funtzio Publikoaren Saileko Giza Baliabideen Zerbitzua arduratuko da praktikaldia diseinatu, ikuskatu eta ebaluatzeaz. Orobat, praktikaldia bukatzean, ebaluazio-proposamen bat egingo du —'gai da' / 'ez da gai'—, behar bezala arrazoiturik —kontuan izan beharko baitu praktikaldia gainditu den ala ez, baita lanbide profilerako egokitasuna ere—, eta Funtzio Publikoaren Saileko zuzendariari igorriko dio.

Egokitzat jotzen diren prestakuntza-ekintzak barne hartuko ditu praktikaldiak. Praktiketan dauden langileei aurretik jakinaraziko zaie zein ezaugarri duen fase horrek, zenbat iraungo duen, nor izango duten tutore, zein izango den ebaluazio-sistema eta ez gaitzat jotzeko proposamenak errekurritzeko zein prozedura dagoen. Praktikaldia bukatzen denetik eta lanpostuaz jabetu bitartean izangaiek aukeran izango du dela praktikaldiko funtzionario gisa jarraitu, dela izendapen hori bukatutzat jo.

2017-2018 LEPeko oinarri orokorrak

PRESTAKUNTZA- ETA PRAKTIKA-ALDIAREN PLANTEAMENDUA

Prestakuntza- eta praktika-fase honi ekingo dio, horretarako zehazten den egunean, Epaimahaiak proposatzen duen izangai-kopuruak, aintzat hartuta bete beharreko leku-kopurua eta hori gainditu gabe.

Aldi horretan praktika profesionala zein –beharrezkotzat jo delarik– lanpostuan bertan edo hortik kanpo prestakuntza uztartuko dira.

Praktikaldiko funtzionario diren bitartean, sartzekotan diren kategoriako sailkapen-taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien pareko ordaina jasoko dute. Ordain hori gehitu egingo da lanpostu bati dagozkion ordainsari osagarriekin, lanpostuak edo kategoriak berezko dituen funtzio eta eginkizunetan arituko baita.

Izangai bakoitzak Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak izendatutako tutore bana izango du.

Praktikaldia gainditzeko, tutoreak aldeko txostena eman beharko du, eta Giza Baliabideen Kudeaketaren Zerbitzuko buruak oniritzia eman beharko dio. Txosten hori azken proposamenari gehituko zaio.

Prestakuntza ikastaroko eta praktika aldiko emaitzak ikusirik, prozesua gainditu duten lehia-kideak karrerako funtzionario izendatzeko proposa-mena egingo du Giza Baliabideen Kudeaketarako Zerbitzuak.

PRESTAKUNTZA- ETA PRAKTIKA-ALDIAREN EZAUGARRIAK

EZ DA GAUZATUKO praktikaldia zenbait egoera (baimenak, lizentziak, ezintasun iragankorreko egoera, lan-utzialdia, edoskitze-aldia, amatasun eta aitatasun aldia, siundikatuko zereginetarako liberazioa eta abar) iraun bitartean.

Lanaldi-murrizketa egoeretan murrizketaren proportzioan burutuko dira praktikaldiko orduak.

IRAUPENA

Deialdiaren oinarrietan ezarritakoa, alegia, hiru hilabeteko aldia, praktiketako funtzionario izendatu eta lanpostuaz jabetu diren unetik hasita. Hautaketa-prozesuaren alderdi hori baloratu ahal izateko, ordu efektiboen kopuruak lanpostuaz praktiketako funtzionario izendatzearekin hasiko den hiru hilabete naturaleko epeari dagozkien ordu teorikoen % 80tik gorakoa izan beharko du.

EZINBESTEKO KASUAK

Ez betetzearen arrazoia ezinbesteko kasu behar bezala justifikatua bada, eta Giza Baliabideen Kudeaketaren Zerbitzuko buruak horrela ulertzen badu, prestakuntza- eta praktika-aldia luzatu egin ahalko da, ezarritako gutxieneko ordu efektiboen kopurua osatu arte.

AMATASUN ETA AITATASUNA

Amatasun baja dela eta ezinezkoa bada lanpostuaz praktikaldian jabetzea, erditu ondoren 18 aste atzeratu ahalko da, gehienez. Erditzea praktikaldian gertatzen bada, izendapena etenda geratuko da, epe berean. Edonola ere, ondorio ekonomiko eta administratiboak promozioko gainerako kideen datetara atzeratuko dira.

Behin praktikaldia amaituta, izangaia egoera administratibo horretan izango da karrerako funtzionario izendatzeko egunera arte; egun horretan hartuko du lanpostuaren jabetza, izendapena atzeratzeko eskatzen ez badu. Praktikaldia amaitu ostean praktiketako funtzionario egoeran dagoen denbora-tartea ez da ebaluatuko.

LANPOSTUA

Praktikaldia izendapena proposatu den lanpostu berean egingo da. Behin praktikaldia amaituta, eta gaindituz gero, lanpostu berean izendatuko da.

EBALUAZIOA

Agiri honi erantsitako ebaluazio-txostenaren arabera egingo da ebaluazioa.

PRESTAKUNTZA- ETA PRAKTIKA-ALDIAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Praktikaldiaren ebaluazioa jarraituz izango da, agiri erantsian gorabeheren berri jasoko delarik.

Izangaiak ebaluazio jarraituaren txostena eskuratu ahal izango du praktikaldian zehar gutxienez hiru aldiz, eta baita azken aldi batean ere, tutoreak praktikaldia gainditutzat edo ez gainditutzat jo eta igorri baino lehen.

Probaldiaren ebaluazio-proposamena ez gainditutzat jotzea den kasuetan, eta hari oniritzia eman ondoren, Giza Baliabideen Kudeaketaren Zerbitzuko buruak entzunaldia eskainiko dio interesatuari, zein azken proposamenean txertatuko baita.

Alkateak edo zinegotzi ordezkariak hautaketa-prozesutik baztertzea eragingo lukeen ebazpena emango balu, interesatuak helegiteak aurkezteko aukera izango du.